

IRUÑERRIAN TAXI ZERBITZUA BATERA EMATEKO LURRALDE EREMUAN TAXI ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA ALDATZEKO PROIEKTUA EGIN AURRETIKO HERRI KONTSULTA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera, legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienek puntu hauei buruz:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.

Aurrekoa betetze aldera, eta aldaketa egin aurretik, lehenago aipatu den ordenantza aldatzeko proiektuari buruz alderdi hauek planteatzen dira:

a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.

- 1.- Ordenantza egokitzea, malguagoa izan dadin taxi-zerbitzuaren erabiltzaileen eskaera eta beharrei dagokienez.
- 2.- Egun indarrean dagoen ordenantzan aldaketak, egokitzapen eta zuzenketa txikiak egitea.

b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.

- 1.- COVID-19a bat-batean iritsi ondoren, eskaera jaitsi egin zen, baina 2022ko udaberriaz geroztik zerbitzuaren erabilera handiagoa eta erabiltzaileen behar eta eskaera berriak detektatzen ari gara. Eta orain, egoera berri honetan, beharrezkotzat jotzen da ordenantzaren alderdi zehatz batzuk egokitzea, hala nola herritarrei plaza-kopuru handiagoko ibilgailuak eskaintzeko aukera, horrek maletategiaren edukiera murriztea badakar ere, baldin eta bezeroak hala nahi badu eta segurtasun-baldintzak betetzen badira.
- 2.- Beharrezkoak diren aldaketa, egokitzapen eta zuzenketa txikiak.

c) Arauaren helburuak.

- 1.- Negatiboki eragiten ari diren alderdi batzuk konpontzea edo hobetzea, erabiltzaileei taxi-zerbitzu malguagoa eta haien eskaerekin bat datorrena eskainita.
- 2.- Beharrezkoak diren aldaketa, egokitzapen eta zuzenketa txikiak egitea.

d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.

Ez dira planteatzen.

Herri-kontsultaren hartzaileak:

- Iruñerriko herritar guztiak.
- Iruñerriko taxi-gidariak.
- Iruñerriko taxi-gidarien elkarteak.